

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Jersey paradisua: lapurren uhartea krisiaren ekaizpean

Aprilaren 2an Londresen bilduko dira G20ko herrialde aberatsetako agintariak. Haien agendan eskua sartu asmoz, militante altermundialista koadrilla batek ibilaldia egin du Jersey uhartean. Jersey bezalako paradisu fiskalek mundua eskubide sozialen infernu bihurtu dutela salatu dute.

MANIFESTAZIO TXIKI BAT EGIN ZEN martxoaren 13an Atlantikoko ugarte txiki batean: zienta bat militante ezkertiar, Gobernu Kanpoko Era-kunde borrokalarienetakoak, tartean ATTAC mugimenduaren Bretania eta Normandiako batzordeetakoak, Jersey ugarte txikian paradisu fiskalen kontra aldarri eginen. Zehaztasunez mintzatzekotan, ez zen manifestazioa, osteratxoa baizik (*déambulation* definitu dute frantsesez), manifestazio publikoa egiteko baimena eskatzen hasi balira antolatzaileek igoyal behar izango zizutelako zortzi hilabete hura lortzeko.

2001ean bai egin zuten manifestazioa hirurehun militante inguruk, *Etonnants Paradis* leloa (Txunditzeko moduko paradisuak) sostengatzeko. Aurtengo kalejirak *Paradis Fiscal*, *Enfer Social* (Paradisu fiskala, infernu soziala) zeraman aldarrikapentzat. Martxoaren 12an Britainiako Saint-Malon elkartur, ferria hartu eta berrogei lagun heldu ziren Jerseyko Saint-Héliér hirira, han bertako militante gehiagorekin batzeko.

Ekitaldiaren hasieran deialdiaren antolatzaile nagusietako ordezkariak mintzatu ziren, Tax Justice Network mugimenduko John Christensen eta Saint-Maloko ATTACeko Jacques Harel. Tax Justice Networkek euskaraz “Bidezko Zergak Sarea” esan nahi du eta ATTAC dira frantsesez-

ko siglak munduan egiten diren finantza salerosketei zerga berezia ezartzea eskatzen duen mugimenduarenak.

Bi egunetan bilkura eta hitzaldiak egin zituzten irlara bilduek, eta 13an ibilaldia, 11 gunetan geldituz, bankuen atarietan ia beti. Turistek eta herriko jendeek harriduraz begiratzen omen zieten. Azken geldialdia Jerseyko gobernuaren sarreran burutu zuten, salaketazko pankartak erakutsiz. Bazkalostean, hurrengo hilabeteetarako planak adosteko batzarra egin zuten han bilduek.

Informaziook ATTACen gunean eskaini ditu Genevieve Coiffard-Grosdek. Bera da kronika hau hornitzen duen argazkiaren egilea ere. Gainerakoan, oihartzunik kasik ez du eduki albisteak komunikabideetan. Baina gaia aktualitate betekoa da: paradisu fiskalak salatzen eta horien kontrolatzea eskatzen duten mugimenduek –ATTAC edo Tax Justice Network bezalakoek– oso minoritario izaten segitzen duten arren, aldi berean krisi ekonomikoak bortxatu ditu gobernuak bezala adituak haien eskakizunak berenganatzerako.

Azken hilabeteotan komunikabide nagusietan paradisu fiskalak aipatzean militante horiek mila bider salatutako herrialdeak izendatzen dituzte, mapa eta guzti. Asko Karibe itsasoan eta Itsaso Barean daude,

ATTAC mugimenduaren gunean Genevieve Coiffard-Grosdek ipinitako argazki handiak erakusten du Jerseyko Saint-Héliér hiriburuan martxoaren 13an militante altermundialistek burutu zuten manifestazioa. Paradisu fiskaletako egitura iruzurtiak desegitea eskatu zuten, horrela aurretik girotuz apirilaren 2an Londresen G20ko buruzagiek egin beharreko bilkura. Irudi txikioa kanpainako logoa da, kreditu txartel baten itxurarekin jokoia egiten duena. Paradisu fiskalera doaz mundu osotik zergak ordaintzen ez dituzten kapital eta etekinak, ustelkeriak mugitzen duen diru beltza eta kriminalitatearena, arma eta drogen trafikoarena barne. 90.000 biztanle dituen Jersey 12.000 ari dira beharrean bankuetan, lau langiletatik bat.

baita European bertan ere. Areago, behin eta berriro paradisu fiskaltzat hartuak izatea saihesten zuten herrialde batzuk –Suitza, Liechtenstein eta Luxenburgoko, bidenabar– zorpean dauden estatu handien presioak jasaten ari dira jardun ekonomikoa gardenagotu dezaten.

Azkenean, azken hamarkadotako politika neoliberalak sekulako diruzuloa eragin dutenean, hura konpontzeko estatuak kapital multzo izugarriak behar dituzte, eta derrihortuta daude iruzurretan eskapo egindako sotesako batzuk bederen eskuratzerako. Joan den astean ARGIA honetan bertan Daniel Udalaitezke xehetasun osoz azaldu zuen paradisuaren izaera.

Piraten babeslekua

Normandiako itsas-hegitik dozena eta erdi kilometrotara egon arren britaniarra da Jersey ugarte, paradisu fiskalen adibide tipikoa. Izenez independentea eta Commonwealtheko kidea, Jersey txikia estu lotuta dago Londresko finantza gunearekin, hau bera ere askorentzako beste paradisu delarik. Britainiako Saint-Malotik bertara doan ferryak honela publizitatzen du bere burua: “Condorferries, l’Évasion est déjà à bord”. Alegia, baporeak itsasaldi laburrean eskaintzen dizula ihesa, disimulu gutxiarekin esanda.



Ihesa da Jerseyren negozioia, hain zuzen. Ez hainbeste turistak bilatzen duen ametsezko ihesa, ordaindu beharreko zergak saihesteko txanponak harantza daramatzaten aberatsen eta korporazioena baizik.

Zer moduz bizi ote dira paradisu fiskal horretan planeta osoa estali duen ekaitzaren erdian? Hori jakin asmoz joan zen udazkenean Olivier Cyran kazetari frantsa Jerseyra eta txangoan ikasitakoa abenduko *Le Monde Diplomatique* hilabetekarian aurkeztu: *La tourmente financière vue d'un paradis fiscal* zen, informazio txit interesgarriekin.

Jersey munduko hirugarren herrialde aberatsena da biztanleko barne produktuari dagokionez, aurretik Luxenburgo eta Berdumak

baino ez dauzka. 600.000 milioi euro zeuden bertako funtsetan inbertituta. Ez da marka txarra pentsatzen bada munduko paradisu fiskal guztien artean bederatzi-hamar bilioi dolar daudela sarturik.

Duela bi urte arte atzerriko enpresei irabazien %10 kentzen zien –alderatu hemendik aipatzen diren %28-33ko zifrekin–, baina geroztik kompetentzia egiten dion Man ugarte txikiak zerga hori erabat kendu zuenez, Jerseyko gobernuak gauza bera egin zuen.

Nork ordaindu behar ditu orduan Estatuaren gastuak? Bertako biztanleek. *Goods and Services Tax* (kontsumoaren gaineko zerga berria) asmatu du Gobernuak. Edozein salerosketaren gainean, %3ko zerga

berezia. Cyranek zerga horrekin haserre aurkitu zituen jerseytar gehienak... baina kasik inor ez da ausartzen ozen esatera.

Jersey ez baita ez oposizio gano-razkorik, ez komunikabide independenterik eta ez sindikaturik, salbu ospitalean eta garraioetan. Lan orduak ez dute mugarik, kanporatzeak ez dakar kalteordainik, langabeziako saririk ez da eta greba eskubi-dea oso zorrotz dago kontrolatuta.

Frank Walker lehen ministroa aurretik Barclays bankuko nagusietakoa izan zen eta 2005ean saldu zuen arte *Jersey Evening Post* egunkaria berea zuen. Gobernuan dauzkana 10 ministroetatik sei *multimillionaire* dira. Ugarteko lau langiletik bat ere bankuetan ari da, mundu osotik heldutako diruaren epelean. Baina krisia heldu da honaino ere. Berrikitan itxia dute Saint Hellierreko komertzio handiena, Woolworths: 80 behargin karrikara.


Neil McMurray arrantzalea zen besoa galdu zuen arte, eta orain blog bat animatzen du. Honela mintzatu zaio kazetariari: “Hemen diru-gosea besterik ez dago. Gazteak urrun doaz, lanik ez delako bankuetan ez bada. Finantzen monolaboreak dena du irentsi, nekazaritza, arrantza eta baita turismoa ere. Jendea haserre dago, baina baita *akojonatuta* ere, hori da benetako arazoa. (...) Krisiak eramango al ditu finantzak porrote-ra, baita asko lanik gabe geratzen badira ere, nire emaztea barne”. ■

www.argia.com/nethurbil.php helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia

